INSTITUTO GERNIKA

DONIBANE LOHITZUN

---

Euskalzalee eta adiskide ona agur.

Gabiltzan bidean jarraitzen ba degu izkuntza maitagarria laixter ese galtzera daterrela garbi ikusten degu eta bere alde zerbait egin nai genduke.

Orain arestian euskeraren batasunez ez-ta-bai-dan euskaldun batzuek aritu dira. Eta batasun au euskeraren irauntzarako garrantzi aundikoa izan litekela ikusiaz " Gernika " deitzen dan eusko-jakintza bazkunekoak gai orretzaz euskaldun idazlioi galdera batzuek egiteko asmoa artu degu.

Or dijuazkizu bada galdera laburrak. Berei erantzuna emanez zure iritxi a laburki agertzen ba diguzu pozik izango gera eta esker ukariak emango dizkitzugu.

Eginkizun oneri dagokien garrantzia emateko, erantzun guztiak bildurik gai orretzaz izango dan izketa-aldi batean bere agerketa bat egin nai genduke.

Lenbailen bidali zaizkiguzu bada,(erderazko zuzen-bide ontara: José de Eizaguirre - 9,Rue Augustin Chaho- Saint Jean de Luz -B.P.)

Agur eta agindu beti zure euskal-kide

"Gernika" bazkuneko buruzagi

[signature]

## EUSKERAREN BATASUNA

GALDERAK:

I.Zure iritxiz batasun au bearra al degu ?.-Beintzat euskera'ren bizia s"ndotzeko,iraun-arazteko,batasun au ona al derizkiozu. ?

2. Batasun au euskera'ren agerkera guztietarako bear al da,ala idazkietako bakarrik,eta oien artean,guztientzat,publikoentzat argitaltzen diran lanetarako. ?

3.Zure ustez,bataketa ortara irixteko euskera bera'tzaz zer erabaki artu bear dira,zer gauzaen bidez bataketara iritxiko ginake ?.

4. Batasunera irixteko erabaki oiek nola aurrera eraman bear dira.Euskal-zaindi edo olako beste bazkun'en baten bidez ?.Ala euskal-idazleak alkar-artuta ?

Ala batuketa egiteko erabakiak artu eta utzi betaz pixkanaka ,eztiki-eztiki,erabaki oiek bete ditezela? ZER DERIZKIOZU.....